



TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA

**OSATU FITXATEGIAREN BALIOZTAPENEN ETA
ERROREEN ZERRENDA**

1.0 bertsioa



AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. BERTSIOEN KONTROLA	3
2.1. 1.0 bertsioa.....	3
3. BALIOZTAPENAK	4
3.1. HARRERAKO BALIOZTAPENAK	5
3.1.1. BALIOZTAPEN OROKORRAK.....	6
4. ERRORE ZERRENDA	7
5. FITXATEGIEN ETA ERROREEN KUDEAKETA	8
5.1. ERROREAK KOMUNIKATZEA	8
5.2. FITXATEGIEN KONTSULTA	8
5.3. ERROREEN ZUZENKETA	9
6. OHARTARAZPENAK	10



1. SARRERA

OSATU fitxategiak jasotzeko prozesuan, GFAk balioztapen batzuk egiten ditu automatikoki. Dokumentu honetan zehazten da zer balioztapen egiten diren, zer motatako errore dagozkion haietako bakoitzari, eta zein kode eta deskribapen dauden errore horiekin lotuta.



2. BERTSIOEN KONTROLA

2.1. 1.0 bertsioa

- Dokumentua sortzea



3. BALIOZTAPENAK.

Balioztapen tipologia bakarra definitu da:

- **HARRERAKO BALIOZTAPENAK:**
 - Helburua da balioztatzea zerbitzuari beharrezko datuak informatzen zaizkiola, etiketen egiturak behar den eskema betetzen duela ordenari, derrigortasunari, formatuari eta luzerari dagokienez, eta balioak bat etorri behar duen aurrez ezarritako balio jakin batzuekin, halakorik aplikatzen bada.
 - Harrerako balioztapenak gainditzen ez badira, fitxategia errefusatu egingo da beti.
 - Harrerako balioztapenak gaindituz gero, fitxategia jaso egingo da.

Balioztapen bakoitza eta hari dagokion errorea kode numeriko baten bidez identifikatzen dira. Halaber, kode horren lehen digituak jatorria ezagutzeko aukera ematen du:

- 0XX eta 5XXX· Gipuzkoako Foru Aldundiaren TicketBAI betebeharrarekin lotutako fitxategiak jasotzeko zerbitzuetarako sortutako balioztapenak eta erroreak
- 1XXX, 2XXX, 3XXX edo 4XXX · BEZaren Berehalako Informazio Horniduraren (BIH) pareko balioztapenak eta erroreak
- 6XXX· Bizkaiko Foru Aldundiaren TicketBAI betebeharrarekin lotutako fitxategiak jasotzeko zerbitzuen antzeko balioztapenak eta erroreak



3.1. HARRERAKO BALIOZTAPENAK

Balioztapenaren deskribapena	Errore kodea
Igorlearen ziurtagiriak homologatuta egon behar du, errebokatu gabe eta iraungi gabe (hilabete baino gehiago).	001
Fitxategiak XSD eskema bete behar du	002
Harrera zerbitzua ez badago erabilgarri, eragiketa geroago errepikatu behar da	006
Igorlearen ziurtagiriak balekoa izan behar du faktura jaulkitzailearentzat	007
Mezuaren tamainak ez du gainditu behar baimendutako tamaina	017
Osatzen ari den fitxategi nagusiak sisteman jasota egon behar du aldez aurretik	024
Beharrezkoa da osatzen ari den fitxategi nagusia lehenago baliogabetu ez izana	025
Osatzen ari den fitxategi nagusiak ez du errorerik izan behar	026
Bete beharreko eremu bat adierazi behar da gutxienez	027

3.1.1. BALIOZTAPEN OROKORRAK

Eremua	Balioztapenaren deskribapena	Errore kodea
HIGIEZINAREN DATUAK		
Higiezinaren datuak	<i>Higiezinaren Datuak</i> blokea beteko bada baldin eta fitxagi nagusian <i>ClaveRegimenIvaOperacionTranscendencia</i> eremua 12 · edo · 13 · gakoa jarriz bete da	2002
KatastroErreferentzia	<i>KatastroErreferentzia</i> eremua informatuko da baldin eta <i>HigiezinarenKokapena</i> eremuan · 3 · edo · 4 balioa jarri ez bada	1155
ORDEZKARIAREN IFZ		
Ordez kariaren IFZ	Adingabea denez, ordez kariaren IFZk balio bat eduki behar du	1122
	Adingabea denez, ordez kariaren IFZ ezin da izan titularrarena	1123
HARTZAILEAREN ORDEZKARIAREN IFZ		
Hartzailearen Ordez kariaren IFZ	<i>Hartzailearen Ordez kariaren IFZ</i> eremua beteko da baldin eta fitxategi nagusian hartzaile bati buruz informatu bada.	5038
HIGIEZINEN ESKUALDAKETAN BEZari LOTUTAKO ZENBATEKOA		
Higiezinaren Eskualdaketa BEZari Lotutako Zenbatekoa	<i>Higiezinaren Eskualdaketa BEZari Lotutako Zenbatekoa</i> eremua beteko da baldin eta fitxategi nagusian hartzaile bati buruz informatu bada.	1170
KUPOIA		
Kupoia	<i>Kupoia</i> eremua beteko da baldin eta fitxategi nagusian <i>FakturaZuzentzailearen Kodea</i> eremua · R1 · edo · R5 · balioa jarriz bete bada.	1160

4. ERRORE ZERRENDA

ERRORE GUZTIEK FITXATEGIA ERREFUSATZEA DAKARTE	
Kodea	Errorearen deskribapena
001	Igorlearen ziurtagiria ez da zuzena (errebotatua, homologatu gabea edo iraungia (orain dela hilabete baino gehiago)
002	Fitxategiak ez du betetzen XSD eskema
006	Harrera zerbitzua ez dago erabilgarri. Egin berriro eragiketa geroago
007	Igorlearen ziurtagiria ez da balekoa faktura jaulkitzailearentzat
017	Mezuaren tamaina ez da zuzena: baimendutako tamaina gainditzen du
024	Osatzen ari den fitxategi nagusia ez dago sisteman
025	Osatzen ari den fitxategi nagusia baliogabetua izan da
026	Osatzen ari den fitxategi nagusiak erroreak ditu
027	Bete beharreko eremu bat adierazi behar da gutxienez
1122	Adingabea denez, ordezkariaren IFZk balio bat eduki behar du
1123	Adingabea denez, ordezkariaren IFZ ezin da izan titularrarena
1155	<i>KatastroErreferentzia</i> eremua informatuko da baldin eta HigiezinarenKokapena eremuan · 3 · edo · 4 balioa jarri ez bada
1160	<i>Kupoia</i> eremua beteko da baldin eta fitxategi nagusian <i>FakturaZuzentzailearen Kodea</i> eremua · R1 · edo · R5 · balioa jarriz bete bada.
1170	<i>HigiezinarenEskualdaketaBEZariLotutakoZenbatekoa</i> eremua beteko da baldin eta fitxategi nagusian hartzaile bati buruz informatu bada.
2002	Osatu behar den fitxategi nagusian <i>RegimenIvaOperacionTranscendencia</i> eremua ez da ageri · 12 · edo · 13 · balioekin
5038	<i>HartzailearenOrdezkariarenIFZ</i> eremua beteko da baldin eta fitxategi nagusian hartzaile bati buruz informatu bada.



5. FITXATEGIEN ETA ERROREEN KUDEAKETA

5.1. ERROREAK KOMUNIKATZEA

Osatu fitxategiak balioztapenetako bat gainditzen ez duenean, errorearen berri emango da hurrengo taulan adierazten diren kanalak erabilita.

ERROREA KOMUNIKATZEKO KANALA

Modu SINKRONOAN komunikatuko dira, XMLren erantzunaren bidez.

5.2. FITXATEGIEN KONTSULTA

Jasotzen diren Osatu fitxategi guztiak, harrerako balioztapen guztiak gainditzen badituzte, GIPUZKOATARIAN egongo dira eskuragarri.

5.3. ERROREEN ZUZENKETA

Erroreak zuzentzeko egin beharreko ekintza errore motaren arabera izango da, ondorengo tauletan adierazten den bezala.

ERRORE MOTA	KODEA	ERROREAREN ZUZENKETA
BIDALKETA ZIURTAGIRIARI edo bidalketa ziurtagiriaren IDENTITATEARI lotua	001 007	Osatu fitxategia BIRBIDALI behin errorea zuzendu ondoren
HARRERA ZERBITZUA ez dago erabilgarri	006	
TicketBAI ALTA fitxategiaren EGITURARI edo GUTXIENeko EDUKIEI lotua	002 017	
Osatu fitxategian informatu behar diren gainerako datuetatik ondorioztatutako erroreak	[...]	
Bete behar den fitxategi nagusiak sisteman jasota egon behar du aldez aurretik	021	<i>Ekintzarik ez</i>



6. OHARTARAZPENAK

Fitxategiak bidaltzen dituztenei jasotako fitxategietan detektatzen diren bestelako gorabeheren berri emango zaie, TicketBAI betebeharra ez betetzea ekar dezaketenean, bai eta horiek zuzentzeko egin beharreko ekintzen berri ere.

OHARTARAZPEN MOTA	ZUZENTZEKO EGIN BEHARREKO EKINTZAK
<p>Jaulkitzailearen IFZk Gipuzkoan erregistratutako zergadun batena izan behar du</p>	<p>Zergapekoa Gipuzkoakoa bada, alta hartu behar du erroldan.</p> <p><i>* Aitorpen zentsala aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera, zerga betebeharrak egiaztatzeke espediente bat hasi daiteke, eta horrek, berekin ekar dezake fitxategia EZABATUA egoerara pasatzea.</i></p>
<p>IGORLEAREN ZIURTAGIRIA iraungita (hilabete baino gutxiago)</p>	<p>Ziurtagiria berritu hurrengo bidalketarako</p> <p><i>* Iraungitze datatik hilabete batera, fitxategia errefusatuko da 001 balioztapenagatik</i></p>